

# Euskaltzaindiarekin lankidetzaren hitzarmena sinatu du gaur Mondragon Unibertsitateak

2010/10/13

Gaur, urriaren 13an, Mondragon Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak bion arteko lankidetzaren hitzarmen bat sinatu dute Euskaltzaindiaren egoitzan. Mondragon Unibertsitatearen izenean Iosu Zabala errektoreak sinatu du eta, Euskaltzaindiarenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak egin du. Hitzarmen horrek Mondragon Unibertsitatearen eta Euskaltzaindiaren arteko elkarlana sortzea du helburu.

Hauek dira hitzarmen horren ildo nagusiak:

- Erakunde biek erraztasunak emango dizkiote elkarri beren ikerketa-ondareak erabiltzeko.
- Mondragon Unibertsitatearentzat, Euskaltzaindia aholkulari ofiziala izango da euskara gaietan.
- Erakunde biek lankidetzaren proiektuak burutuko dituzte ikerketaren arloan, bai elkarrekin jorratuko dituzten ikerketa-ildo bidez, adibidez urtero biltzarrak, jardunaldiak edo mintegiak antolatuz, eta bai bakoitzak bere ikerketa-programazio orokorrean lehentasunezko ikerketa-ildoak markatuz.
- Euskaltzaindiak argitaratzen duen liburu bakoitzaren ale bat emango dio Mondragon Unibertsitateari, eta Unibertsitateak ere ale bat emango dio Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekari euskaraz, euskararen inguruan edo Euskal Herriari buruz liburu bat argitaratzen duen bakoitzean.
- Erakunde biek elkarren esku jarriko dituzte ikerketarako interesgarriak izan daitezkeen lan argitaragabeak, hala nola tesiak edo bestelako ikerlanak.
- Baterako argitalpen-politika bultzatuko da bi erakundeen artean euskarari buruzko ikerketen emaitzak argitaratzeko. Hain zuzen ere, aurten liburu hau argitaratuko dute elkarrekin: Agirre Asteasuaren eracusaldiak. Sermoia ikuspegi sozio-diskurtsiboaren argitan, Mondragon Unibertsitatearen irakasle den Arantza Ozaetaren doktorego tesia.

Helburu hauek lortzeko, Mondragon Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak Jarraipen Batzorde bat sortuko dute, sei kide izango dituena, hiru unibertsitateak izendatuak eta beste hirurak Euskaltzaindiak izendatuak. Hitzarmenak 3 urte iraungo du eta hiru urtetik bost urtera luzatu ahal izango da.

